

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak bizikidetzaren arloan lankidetzarako bideak aztertzea adostu dute

Ollo kontseilaria Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezekin bildu da gaur goizean

Ostirala, 2016.eko maiatzak 20

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak bizikidetzaren arloan kooperazio eta lankidetzarako bideak aztertzea adostu dute gaur goizean, eta hiru arlo nagusitan berariaz: biktimak, hezkuntza eta bizikidetzako proiektu europarrak.

Hala jakinarazi dute Nafarroako Jauregian Herritarrekiko eta

Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Joan Fernandezek. Bileran parte hartu dute, halaber, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibar-ek eta Eusko Jaurlaritzako Biktima eta Giza Eskubideetako zuzendari Monika Hernandok.

Bi ordezkartzen artean egindako lehen bilera honekin, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Protokoloak aurreikusitako 18 jardueretako bat aktibatzen da; Protokolo hori maiatzaren 10ean [izenpetu](#) zuten Eusko Jaurlaritzako Iñigo Urkullu lehendakariak eta Nafarroako Gobernuko Lehendakari Uxue Barkosek.

Arlo horri lotuta, Protokoloak dio bi Gobernuak "egokitzat jotzen dutela elkarrekiko lankidetzaren lerroak finkatzea bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideen esparruan"; horrez gain, "loturak sortzea, gure gizartean bakea eta bizikidetzaren finkatzeko beharrezko baldintzak sortuko dituzten programak nahiz ekintzat sustatzea aldera, beti ere elkarrekiko adostasunetik".

Aipatutako protokoloak dio, gainera, lehentasunezko lankidetzaren lerroak honako hauetan oinarritzen direla: "Pertsona eta giza eskubideen duintasuna errespetatu eta sustatzea; indarkeriaren gaitzespena edozein ideia edo proiektu babesteko baliabide modura; egia eta justizia eskubidearen babesa eta biktima guztien erreparazioarako eskubidea; memoria kritiko baten eginkizuna bizikidetzaren eraikitzearen orduan, bai eta



Ollo kontseilaria Jonan Fernandezekin bildu da.

gure autonomia erkidegoetan izandako giza eskubideen urraketa guztiena ere; bakearen kultura eta errespetu, demokrazia eta bizikidetzaren balioak sustatzea".

Biktimak, hezkuntza eta proiektu europarrak

Esparru honen barnean, gaurko bilerak balio izan du, alde batetik, egoerari buruzko iritzi trukaketa bat egiteko, eta bestetik, Gobernu bakoitza sartuta dagoen proiektu eta ekimenak erreparatzeko ere bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen gaietan. Bileraren bigarren zatian koordinazio-arloak eta bi gobernuen arteko lankidetzeta aurrera eramateko proiektu edo ekimenak aztertu dira.

1. Biktimak. Bi gobernuen arteko koordinazioaren helburu nagusietako bat esperientzien nahiz jardunbide egokien trukaketan oinarrituko da egiaren, justiziaren eskubideei eta biktimei dagozkien erreparazioari erantzun instituzionala emateko orduan. Lehen urrats modura, elkarrekin aztertuko dira: laguntza politikak, aitortza eta erreparazioko politikak, eta antolakuntza- nahiz lan-mailako alderdiak informatikako tresna modura biktimen eta haien arretari buruzko informazioaren kudeaketa optimizatze aldera.

2. Hezkuntza. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean ariko dira bake eta bizikidetzarako arloan. Zehazki, esperientziak partekatuko dituzte: biktima hezitzaileen Adi-Adian programa adibidez, edo Ahotsak, bizikidetzarako hezkuntza unibertsitate-eremura zabaltzeko.

3. Bizikidetzako proiektu europarrak. Bi gobernuak "Europa herritarrekin" izeneko programan elkarrekin ariko dira lanean, Memoria eta Bizikidetzarako Tokien politika publikoei buruzkoa (MEMSITE proiektua). Gainera, bake eta bizikidetzako lankidetzeta-proiektu europarretan elkarlanean ariko dira, IV Peace Programe-ren esparruan egin daitezkeenak.

4. Koordinazioa. Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta Nafarroako Gobernuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak koordinazio-esparru egonkor bat izango dute Alvaro Baraibar eta Jonan Fernandez buru direla. Koordinazio horren helburua da, bi autonomia erkidegoen bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen ongizate komunari eragin diezaieketen informazio, proiektu eta ekimen guztiak partekatzea.

Bi ordezkariak irailean Gasteizen berriz biltzea adostu dute.